Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# Euskara ikasteko dirulaguntzak. 2019ko deialdia

**Aurkibidea**


**ALDERDI OROKORRAK**

1. artikulua. Deialdiaren helburua
2. artikulua. Aurrekontua
3. artikulua. Diruz lagunduko diren taldeak
4. artikulua. Onartua izateko baldintza orokorrak
5. artikulua. Eskabideak
6. artikulua. Eskaria eta aurkeztu beharreko agiri orokorrak
7. artikulua. Datuak kontsultatzeko baimena
8. artikulua. Zuzenketak egiteko epea
9. artikulua. Aprobetxamenduari buruzko eskakizunak
10. artikulua. Balorazio prozedura
11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena
12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea
13. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin
14. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea
15. artikulua. Datuen babesa
16. artikulua. Arautegia

**A) GURASOEN TALDEA**

17. artikulua. Baldintza espezifikoak
18. artikulua. Aurkeztu behar den dokumentazio espezifikoa

**B) AISIALDIKO ETA KIROLETAKO BEGIRALEEN TALDEA**

19. artikulua. Baldintza espezifikoak
20. artikulua. Aurkeztu behar den dokumentazio espezifikoa

**C) ERRENTA TALDEA**

21. artikulua. Baldintza espezifikoak
22. artikulua. Aurkeztu behar den dokumentazio espezifikoa


# Ayudas Económicas para aprender euskera. Convocatoria 2019

**Índice**


**ASPECTOS GENERALES**

Artículo 1. Objeto de la convocatoria
Artículo 2. Presupuesto
Artículo 3. Colectivos a subvencionar
Artículo 4. Requisitos generales de admisión
Artículo 5. Solicitudes
Artículo 6. Solicitud y documentación general a aportar
Artículo 7. Autorización de consulta de datos
Artículo 8. Plazo de subsanación
Artículo 9. Requisitos de aprovechamiento
Artículo 10. Procedimiento de valoración
Artículo 11. Resolución y Notificación
Artículo 12. Abono de la ayuda
Artículo 13. Compatibilidad con otras ayudas
Artículo 14. Publicidad de las ayudas concedidas
Artículo 15. Protección de Datos
Artículo 16. Normativa aplicable

**A) COLECTIVO MADRES-PADRES**

Artículo 17. Requisitos específicos a cumplir
Artículo 18. Documentación específica a aportar

**B) COLECTIVO MONITORAS-MONITORES DE TIEMPO LIBRE Y DEPORTE**

Artículo 19. Requisitos específicos a cumplir
Artículo 20. Documentación específica a aportar

**C) COLECTIVO RENTA**

Artículo 21. Requisitos específicos a cumplir
Artículo 22. Documentación específica a aportar

**ALDERDI OROKORRAK**

**1. ARTIKULUA. DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honek arautzen du Bilboko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak 2018-2019 ikasturtean euskara ikastearren emango dituen dirulaguntzak izapidetzeko eta lortzeko prozedura.

Deialdi honetan "2018-2019 ikasturtea" 2018ko uztailaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitarteko aldia da.

Helburua da euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea Bilbon, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz estrategikoei jarraituta: euskararen jabekuntza, erabilera eta kalitatea.

**2. ARTIKULUA. AURREKONTUA**

**Aurrekontuaren zenbatekoa:** 209.000 euro.
**Aurrekontuaren kodea:** 2019/00095.
Deialdian zehar -deialdia onartzen denetik dirulaguntza ematen den arte- aurrekontuko zenbatekoa murrizten bada, dirulaguntzaren zenbatekoa egokitu egingo da defizitik egon ez dadin. Hori egitea nahitaezkoa da 2/2012 Lege Organikoaren arabera.

**3. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN TALDEAK**

Hiru talde hauek lagunduko dira:

A) Gurasoak
B) Aisialdiko eta kiroletako begiraleak
C) Errenta: herritarrak, euren diru-sarrerak 21.1 artikuluan ezarritako mugak gainditzen ez dituztenean.

Eskatzaileek talde bakar bat aukeratu behar dute.

Hiru taldeak berdin balioetsiko dira, 10. artikuluaren arabera, ez da alderik egingo euren artean eta ez zaio lehentasuna emango bati beste baten aurrean.

Deialdi honetarako aukeratutako taldea aldatu ahal izango da hurrengo deialdietan.

**ASPECTOS GENERALES**

**ARTÍCULO 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA**

Esta convocatoria regula el procedimiento para tramitar y obtener las ayudas económicas que el Área de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Bilbao concede por aprender euskera durante el curso 2018-2019.

A los efectos de esta convocatoria se entiende por "curso 2018-2019" el período comprendido entre el 1 de julio de 2018 hasta el 30 de junio de 2019.

El objetivo es fomentar y normalizar el uso del euskera en Bilbao siguiendo los ejes estratégicos del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP): adquisición, uso y calidad del euskera.

**ARTÍCULO 2. PRESUPUESTO**

**Importe presupuestado**: 209.000 euros.
**Código presupuestario:** 2019/00095.
Si en el transcurso de esta convocatoria, es decir, desde su aprobación hasta la concesión de la ayuda, el importe presupuestado sufriese alguna reducción, se adecuará el importe para evitar el déficit. Así lo establece, como obligatorio, la Ley Orgánica 2/2012.

**ARTÍCULO 3. COLECTIVOS A SUBVENCIONAR**

Se subvencionarán tres colectivos:

A) Madres y padres
B) Monitores y monitoras de tiempo libre y de deporte
C) Renta: ciudadanos cuyos ingresos no superen los límites del artículo 21.1.

Las personas solicitantes seleccionarán un único colectivo.
Los tres colectivos se valorarán de igual forma según el artículo 10 y no habrá diferencias entre ellos ni se beneficiará a uno frente a otro.

El colectivo elegido en la presente convocatoria se podrá modificar en futuras convocatorias.

## 4. ARTIKULUA. ONARTUA IZATEKO BALDINTZA OROKORRAK

Eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 16 urte beteta edukitzea 2019ko apirilaren 30a baino lehen.
- Bilbon erroldatuta egotea, gutxienez, 2018ko uztailaren 1etik eta dirulaguntzak emateko prozesuan, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.
- Euskara-ikasketak egin izana 2018-2019 ikasturtean HABEk homologatutako euskaltegietan.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izatea deialdi honetako dirulaguntza emateko prozesu osoan, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.
- Hartzekodunen Erregistroan izena emanda egotea edo deialdi honetako eskariarekin batera ematea.

Baldintza horiez gain, eskatzaileek bere taldeko onarpen-baldintza espezifikoak bete behar ditu; baldintza horiek deialdi honetako 17., 19. eta 21. artikuluetan adierazitakoak dira.

## ARTÍCULO 4. REQUISITOS GENERALES DE ADMISIÓN

Todas las personas solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener cumplidos 16 años antes del 30 de abril del 2019.
- Estar empadronadas en Bilbao, al menos, desde el 1 julio de 2018 y durante todo el proceso de concesión, reconocimiento de la obligación y pago.
- Haber cursado estudios de euskera (presencial/autoaprendizaje) en euskaltegis homologados por HABE durante el curso 2018-2019.
- Estar al corriente de las obligaciones fiscales, de la Seguridad Social y tributarias con el Ayuntamiento de Bilbao durante todo el proceso de concesión, reconocimiento de la obligación y pago.
- Estar inscrito en el Registro de Acreedores del Ayuntamiento de Bilbao o hacerlo junto con la solicitud de esta convocatoria.

Además de estos requisitos, la persona solicitante deberá cumplir los requisitos específicos de admisión del colectivo al que pertenezca y que aparecen señalados en los artículos 17, 19 y 21 de esta convocatoria.

## 5. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

**5.1. Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan kontsulta dezakezue:**
www.bilbao.eus/euskara_dirulaguntza

**5.2. Dokumentazioa, paperean, bulego hauetan jaso daiteke:**

- Herritarren informazio bulegoa (San Agustin eraikina; ordutegia: 08:30-14:00 eta eguenetan, baita 16:30etik 19:30era ere).
- Barrutietako udaltegiak (ordutegia: 08:30-14:00).

**5.3. Eskariak aurkezteko epea:** 12 egun baliodun, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

## ARTÍCULO 5. SOLICITUDES

**5.1. La información sobre la convocatoria se puede consultar en:**
www.bilbao.eus/ayuda_euskara

**5.2. La documentación en papel se puede recoger en:**

- Oficina de Atención Ciudadana (Edificio San Agustín; horario: 08:30-14:00 y jueves también 16:30-19:30)
- Oficinas Municipales de Distrito (horario: 08:30-14:00)

**5.3. Plazo de presentación de solicitudes:** 12 días hábiles a partir del día siguiente a que se publique el resumen de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**5.4. Eskariak aurkezteko lekua:** Udalaren web-orriaren bidez edo erregistroan egin daitezke eskaerak.

- Udalaren web gunea: Bilbao.eus
  Eskatzailea ziurtagiri digital onartu baten jabe izan beharko da (NANa, Izenpe,…).
  Bilboko Udalak eskainitako sarrerarako gakoaren bidez ere sartu ahal izango da. Gakoa Ernesto Erkoreka plazako 12. zenbakian dagoen jendearen arretarako bulegoan eska daiteke (San Agustin eraikinean) edo barrutiko edozein bulegotan. Webgunean sartzeko gakoa eskatzeko inprimakia bete beharko da eta NANaren fotokopia aurkeztu eskariarekin batera.

- Erregistroan:
  - Herritarren informazio bulegoan (San Agustin eraikina; ordutegia: 08:30-14:00 eta eguenetan, baita 16:30etik 19:30era ere), edo
  - Erregistroa duten barrutietako udaltegietan (ordutegia: 08:30-14:00).
  - 39/2015 Legean eta 72/2008 Dekretuan aurreikusitako lekuetan. Horrelakoetan, eskariak Bilboko Udaleko Erregistro Orokorrera bidaliko dira.

**5.4. Lugar de presentación de solicitudes**: Las solicitudes podrán presentarse a través de la página web municipal o por registro.

- Por la página web municipal: Bilbao.eus
  Es necesario tener un certificado digital reconocido (DNI, Izenpe,…).
  También se puede acceder con una clave de acceso web facilitada por el Ayuntamiento de Bilbao. La clave se puede solicitar personalmente en la oficina de atención al público (Plaza Ernesto Erkoreka, 12, Edificio San Agustín) o en cualquiera de las oficinas de Distrito, donde se rellenará el modelo de solicitud de claves de acceso web y se añadirá la fotocopia del DNI de la persona solicitante.

- Por registro en:
  - Oficina de Atención Ciudadana (Edificio San Agustín; horario: 08:30-14:00 y jueves también 16:30-19:30), o
  - Oficinas Municipales de Distrito con registro (horario: 08:30-14:00)
  - Otros lugares previstos en la Ley 39/2015 o en el Decreto 72/2008. En este caso, se remitirán al Registro General del Ayuntamiento de Bilbao.

## 6. ARTIKULUA. ESKARIA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRI OROKORRAK

**6.1.** Eskabidea Udalaren web orriaren bidez izapidetzen bada, formularioa bete eta agiriak PDF formatuan erantsi behar dira.

**6.2.** Erregistrotik izapidetuz gero, agiri hauek aurkeztuko dira:
**6.2.1. Eskabide orria** (I. ERANSKINA). Eskatzaileak behar bezala beteta eta eskatzailea adin txikikoa bada, ordezkariak. Eskabide orria behar bezala beteta eta sinatuta ez badago, forma-akatsa da eta zuzendu egin behar da.

## ARTÍCULO 6. SOLICITUD Y DOCUMENTACIÓN GENERAL A APORTAR

**6.1.** Si se tramita la solicitud mediante la página web municipal, se deberá rellenar el formulario y adjuntar la documentación en formato PDF.

**6.2.** Si se tramita la solicitud por registro, se presentará la siguiente documentación:
**6.2.1. El impreso de solicitud** (ANEXO I). Correctamente rellenada y firmada por la persona solicitante o su representante, si la persona solicitante es menor de edad. En caso de que la solicitud no estuviera correctamente rellenada y firmada supondrá un defecto de forma que habrá que subsanar.

**6.2.2. Hartzekodunen fitxa** (II. ERANSKINA), eta Udalaren Hartzekodunen Erregistroan izena emateko fitxan eskatzen diren agiriak.
Hartzekodunen Erregistroan eskatzailearen bankuko datuak daude eta hortaz, Udalak dirulaguntza ordaindu ahal izateko ezinbestekoa da erregistroan izena emanda egotea.

Agiri hau dirulaguntza eskatzen den lehenengo urtean bakarrik aurkeztuko da edo datuetan aldaketak egon badira.

**6.2.3.** Eskatzailearen **NANaren kopia** eta ordezkariarena, eskatzailea adin txikikoa bada.

**6.2.4.** Helburu bererako Bizkaiko Foru Aldundia ez den erakunde batetik dirulaguntza jaso izanaren ziurtagiria, hala bada.

**6.3.** Agiri horiez gain, eskatzailearen taldeari dagozkion agiri espezifikoak aurkeztu beharko dira. Agiri horiek zeintzuk diren 18., 20. eta 22. artikuluetan daude adierazita.

**6.2.2. La Ficha de Acreedores** (ANEXO II) con la documentación en ella requerida para inscribirse en el Registro de Acreedores del Ayuntamiento.
El Registro de Acreedores contiene los datos bancarios de la persona solicitante y es imprescindible estar inscrita para que el Ayuntamiento pueda realizar el pago de la subvención.
Este documento se presentará únicamente el primer año de solicitud de la ayuda o en caso de modificaciones posteriores de los datos requeridos.

**6.2.3. Copia del DNI** de la persona solicitante y su representante, si la persona solicitante es menor de edad.

**6.2.4.** En caso de haber recibido ayuda de otra entidad distinta de la Diputación Foral de Bizkaia, con la misma finalidad, el correspondiente documento acreditativo.

**6.3.** Junto con estos documentos, la persona solicitante deberá presentar los documentos específicos que le correspondan al colectivo al que pertenece y que aparecen recogidos en los artículos 18, 20 y 22 de esta convocatoria.

## 7. ARTIKULUA. - DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA

**7.1.** Eskaera aurkeztuta eta 39/2015 Legearen arabera, ulertzen da eskatzaileak edo bere ordezkariak, eskatzailea adin txikikoa bada, Euskara eta Hezkuntza Sailari baimena ematen diola onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko behar diren datuak eskudun administrazioei eskatzeko.

Era berean, euskaltegiei eskatzaile bakoitzaren honako datu hauek eskatuko zaizkie:

- egindako ikastaroen epeak
- matrikularen kopuru osoa
- ordaindutako kopuru osoa, Euskara Eskura Txartelaren kopurua kenduta, baldin eta jaso izan badu.

Euskaltegi bakoitzak datu horiek Euskara Zuzendariordetzara igorriko ditu sinatutako ziurtagiri egokiaren bitartez.

## ARTÍCULO 7.- AUTORIZACIÓN DE CONSULTA DE DATOS

**7.1.** Con la presentación de la solicitud y de acuerdo a la Ley 39/2015, se entenderá que la persona solicitante o su representante, si la persona solicitante es menor de edad, autoriza al Área de Euskera y Educación a recabar de las administraciones competentes los datos necesarios para comprobar que cumple todos los requisitos para ser beneficiaria.

Así mismo, se requerirán a cada euskaltegi los siguientes datos de matrícula de cada persona solicitante:

- fecha de los cursillos realizados
- importe total de la matrícula
- importe total abonado, descontado el importe de la Euskara Eskura Txartela, en caso de haberla obtenido.

Dichos datos serán remitidos por cada euskaltegi a la Subdirección de Euskera en un certificado debidamente firmado.

**7.2.** Eskatzaileak edo bere ordezkariak horretarako baimenik ematen ez badio Euskara eta Hezkuntza Sailari, eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
- Hiru taldeek aurkeztu beharreko agiriak

1. Erroldagiria (Errenta taldeak salbu).
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen Saileko agiria, zorrik ez duela ziurtatzen duena.
3. Gizarte Segurantzaren agiria, zorrik ez duela ziurtatzen duena.
4. Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso izanaren ziurtagiria (Euskara Eskura Txartela)
5. Euskaltegiak sinatutako ziurtagiria. Ziurtagirian datu hauek agertuko dira: egindako ikastaroen epeak, matrikularen kopuru osoa eta ordaindutako kopuru osoa, Euskara Eskura Txartelaren kopurua kenduta, baldin eta jaso izan badu.
   Barnetegiko ordainagirietan datu hauek bereizita agertuko dira: matrikula-gastuak, irakaskuntzako gastuak eta ostatuaren eta mantenuaren gastuak. Matrikulari eta irakaskuntzari dagozkion gastuak baino ez dira kontuan hartuko.
6. HABEren txostena, aprobetxamenduari eta asistentziari buruzkoa. Azken agiri hori 2019ko uztailaren 19a baino lehenago aurkeztu behar da.

- Errenta taldeak aurkeztu beharreko agiriak:
  1.- Errolda-ziurtagiri taldea

  2.- Bizikidetza- edo familia-unitateko pertsona guztien 2017ko ekitaldiko zerga-datuak.

## 8. ARTIKULUA. ZUZENKETAK EGITEKO EPEA

**10 egun balioduneko** epea egongo da zuzenketak egiteko, alegia, eskaria behar bezala beteta ez badago edota daturen bat edo agiriren bat falta bada. Epe hori amaituta, interesdunak ez badu informazioa zuzendu edo agiriak aurkeztu, eskarian

**7.2.** Si la persona solicitante o su representante no autorizan al Área de Euskera y Educación a recabar sus datos, deberá aportar con la solicitud la siguiente documentación:
- Documentación general para los tres colectivos:
1. Certificado de empadronamiento (excepto colectivo de renta).
2. Certificado del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia de no tener deudas.
3. Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social de no tener deudas.
4. Documento justificativo de haber recibido ayuda de la Diputación Foral de Bizkaia (Euskara Eskura Txartela)
5. Certificado debidamente firmado del euskaltegi con la fecha de los cursillos realizados, importe total de la matrícula e importe total abonado, descontado el importe de la Euskara Eskura Txartela, en caso de haberla obtenido.
   El certificado de barnetegi hay que presentarlo desglosados en: gastos de matrícula, gastos de enseñanza y gastos de alojamiento y manutención. Únicamente se tendrá en cuenta el gasto de matrícula y de enseñanza.
6. Informe de HABE con los datos de aprovechamiento y asistencia. Este documento deberá entregarlo antes del 19 de julio del 2019.

- Documentación para el colectivo renta:
  1.- Certificado de empadronamiento colectivo.
  2.- Datos tributarios del ejercicio 2017 de todas las personas que integran la unidad de convivencia o familiar.

## ARTÍCULO 8. PLAZO DE SUBSANACIÓN

**10 días hábiles** desde la notificación del Ayuntamiento si la solicitud no estuviera correctamente rellenada o faltara algún dato o documento. Finalizado dicho plazo, si la persona interesada no ha aportado o subsanado la

atzera egin duela ulertuko da, administrazioaren ebazpenaren ondoren.

## 9. ARTIKULUA. APROBETXAMENDUARI BURUZKO ESKAKIZUNAK

Dirulaguntza eskatutako ikasturtean aprobetxamendu-eskakizun hauek bete behar dira:

- Maila bat, gutxienez, gainditzea, HABEKo curriculum-eko A1A1 mailatik C1C1 mailara bitartean, eta
- Ikastaro bakoitzeko gutxienez % 70era joatea, guztirako eskola-orduetatik..

## 10. ARTIKULUA. BALORAZIO PROZEDURA

**10.1 Egiaztatzea:** Euskara eta Hezkuntza Sailak ofizioz egingo ditu onuradunak aprobetxamenduko eta asistentziako baldintzak betetzen dituela zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko behar dituen jarduketak, 9. artikuluan adierazita daudenak.

**HABE** (Helduen Alfabetatze eta Berreuskaldutzerako Erakundea) da aprobetxamenduko eta asistentziako datuak txosten batekin ziurtatuko dituen erakunde ofiziala.
Sailak HABEri eskatuko dio eskatzaileen euskara-ikaskuntzako prozesuari buruzko txostena egiteko, betiere eskatzaileek baimena eman badute euren datuak erabiltzeko.

Baimenik eman ez duten pertsonek eurek aurkeztu beharko dute txosten hori, 2019ko uztailaren 19a baino lehen.

**10.2. Puntuazioa** gainditutako maila bakoitzean % 70eko asistentzia behar da, gutxienez:

| Maila | Puntuak |
|---|---|
| A1A1 | 1 puntu |
| A2A1 | 1 puntu |
| A2A2 | 1 puntu |
| B1A2 | 1 puntu |
| B1B1 | 1 puntu |
| B2B1 | 1,5 puntu |

información requerida, se le tendrá por desistido de su petición previa resolución de la administración.

## ARTÍCULO 9. REQUISITOS DE APROVECHAMIENTO

Durante el curso para el que se ha solicitado la subvención se deben dar los siguientes requisitos de aprovechamiento:

- Superar, como mínimo, un nivel desde el A1A1 al C1C1 establecido en el Currículum de HABE, y
- Una asistencia mínima del 70% del total de horas de cada cursillo.

## ARTÍCULO 10. PROCEDIMIENTO DE VALORACIÓN

**10.1. Comprobación:** El Área de Euskera y Educación realizará de oficio las actuaciones que considere necesarias para determinar, conocer y comprobar que la persona beneficiaria cumple las condiciones de aprovechamiento y asistencia establecidas en el artículo 9.

**HABE** (Instituto para la Euskaldunización y Alfabetización de Adultos) es el organismo oficial que certificará con un informe los datos de aprovechamiento y asistencia.
El Área solicitará a HABE el informe sobre el proceso de aprendizaje de euskera de las personas solicitantes que lo hayan autorizado.

Las personas que no hayan autorizado al Área la comprobación de sus datos deberán aportar dicho informe, antes del 19 de julio de 2019.

**10.2. Puntuación** por cada nivel aprobado con un 70% de asistencia mínima:

| Nivel | Puntuación |
|---|---|
| A1A1 | 1 punto |
| A2A1 | 1 punto |
| A2A2 | 1 punto |
| B1A2 | 1 punto |
| B1B1 | 1 punto |
| B2B1 | 1,5 puntos |

| | |
|---|---|
| B2B2 | 1,5 puntu |
| C1B2 | 1,5 puntu |
| C1C1 | 2 puntu |

Eskatzaileak maila bat baino gehiago gainditu badu, gainditutako mailen puntuak batuko dira eta horiek izango dira guztirako puntuak.

**10.3. Jasoko den zenbatekoa:**

- Puntu bakoitzeko gehienez ere jasoko den diru-kopurua: 325 €.
- Dirulaguntzaren gehieneko kopurua: matrikularen zenbatekoa.
- Dirulaguntza ez da sekula ere 1.000 euro baino gehiago izango.
- Aurrekontuan dagoen zenbatekoa nahikoa ez bada baldintza guztiak betetzen dituzten eskariei ordaintzeko, puntu bakoitzeko gehienez jaso daitekeen diru-kopurua proportzioan murriztuko da.

**10.4.** Gainditutako maila bakoitza behin baino ez da diruz lagunduko. Dirulaguntza jaso duen azken mailatik beherakoek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

**10.5 Instrukzioa eta balorazioa:** Euskarako Zuzendariordetza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz. Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa da eta hauek dira kideak:

- Batzordeburua: Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria.
- Idazkaria: Euskara eta Hezkuntza zuzendaritza.
- Kidea: Euskara zuzendariordetza.

Eskariak aztertuta, Balorazio Batzordeak balorazioen txostena aurkeztuko du. Organo instrukzio-egileak behin betiko ebazpenaren proposamena egingo du, emandako eta ukatutako dirulaguntzekin. Horretarako, kontuan hartuko dira espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena.

| | |
|---|---|
| B2B2 | 1,5 puntos |
| C1B2 | 1,5 puntos |
| C1C1 | 2 puntos |

Si la persona solicitante aprueba más de un nivel, se sumará la puntuación correspondiente a los niveles aprobados y esa será la cantidad de puntos conseguidos.

**10.3. Importe** a recibir:

- Cantidad máxima por punto conseguido: 325€.
- Cantidad máxima de la ayuda: importe total abonado por la matrícula.
- En ningún caso se superarán los 1.000€ de ayuda.
- Si el importe presupuestado fuera insuficiente para abonar todas las solicitudes que cumplen los requisitos, la cantidad máxima por punto conseguido se reducirá proporcionalmente.

**10.4.** Cada nivel aprobado sólo se subvencionará una vez. No se subvencionará ningún nivel inferior al último subvencionado.

**10.5. Instrucción y valoración:** La Subdirección de Euskera se encargará de la instrucción del procedimiento. La Comisión de Valoración actúa como órgano colegiado y estará formado por:

- Presidencia: Concejal Delegado del Área de Euskera y Educación.
- Secretaría: Dirección del Área de Euskera y Educación.
- Vocalía: Subdirección de Euskera.

Evaluadas las solicitudes, la Comisión de Valoración presentará un informe con las valoraciones. El órgano instructor formulará la propuesta de resolución definitiva, que establece cuales son las ayudas concedidas y las denegadas, teniendo en cuenta el expediente y el informe de la Comisión de Valoración.

## 11. ARTIKULUA. EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

**11.1.** Gobernu Batzordeak dirulaguntzak ematea eta ukatzea zehaztuko duen prozeduraren ebazpenaren erabakia emango du.
**11.2. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea:** 6 hilabetekoa, deialdia argitaratzen denetik. Jakinarazi egingo dira emandako eta ukatutako dirulaguntzak. Epe horren barruan jakinarazpenik ez badago, eskaria ezetsitzat joko da.
**11.3. Jakinarazpenaren lekua:** eskatzaileak edo ordezkariak eskarian adierazi duen helbidea. Adierazitako helbidean jakinarazterik ez badago, jakinarazpena "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da, 39/2015 Legearen arabera.
**11.4.** Ebazpenaren erabakiak administrazio-bidea amaitzen du eta beraren aurka errekurtso hauek aurkez daitezke:

- **Berraztertzeko aukerako errekurtsoa**, Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera.
- **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako hilabete biko epea izango da, jakinarazpen jasotzen denetik hasita.

## ARTÍCULO 11. RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

**11.1.** La Junta de Gobierno dictará el **acuerdo de resolución** del procedimiento que determinará las concesiones y denegaciones.
**11.2. Plazo máximo para resolver y notificar**: 6 meses desde la publicación de la convocatoria. Se notificarán las ayudas concedidas y denegadas. Si en dicho plazo no hay notificación, la solicitud se entenderá desestimada.
**11.3. Lugar de notificación**: domicilio señalado en la solicitud por la persona solicitante o representante. Si no se puede notificar en el domicilio señalado, se publicará la notificación en el «Boletín Oficial del Estado», según la Ley 39/2015.
**11.4.** Contra el acuerdo de resolución, que pone fin a la vía administrativa, se pueden presentar:

- **Recurso potestativo de reposición** ante la Junta de Gobierno, en el plazo de 1 mes desde la notificación de la resolución.
- **Recurso Contencioso-Administrativo** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo que corresponda, en el plazo de 2 meses desde la notificación de la resolución.

## 12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

**Ordaintzeko epea:** 30 egunekoa, dirulaguntza onartu denetik.
**Ordaintzeko modua:** banku-transferentzia eginda Udalaren Hartzekodunen Erregistroan agertzen den onuradunaren kontuan.

## ARTÍCULO 12. ABONO DE LA AYUDA

**Plazo de abono**: 30 días desde la concesión.

**Forma de abono**: mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente de la persona beneficiaria que figure en el Registro de Acreedores del Ayuntamiento de Bilbao.

## 13. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

**13.1.** Bilboko Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuetakoekin. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da izan matrikularen zenbatekoa baino handiagoa.

## ARTÍCULO 13. COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS

**13.1.** La ayuda concedida por el Ayuntamiento de Bilbao es compatible con la de otras administraciones o entes públicos o privados. El importe de las ayudas obtenidas no puede ser superior al coste de la matrícula.

**13.2.** Eskatzaileak beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuetara eskatutako dirulaguntzak aitortu beharko ditu. Horrelako dirulaguntzarik jasoz gero, zenbatekoa adierazi eta egiaztagiria erantsiko da eskarian.

**13.2.** La persona solicitante declarará las ayudas solicitadas a otras administraciones o entes públicos o privados para el mismo fin. En caso de que obtenga estas, deberá declarar su importe en la solicitud y presentará la documentación que las justifique.

## 14. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira, 38/2003 Legearen arabera.

## ARTÍCULO 14. PUBLICIDAD DE LAS AYUDAS CONCEDIDAS

Todas las ayudas concedidas deberán publicarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según la Ley 38/2003.

## 15. ARTIKULUA. DATUEN BABESA

Bilboko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak datu pertsonalen tratamendua Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoaren arabera egiten du, talde jakin batzuei euskara ikasteko eskariak eta horretarako dirulaguntzak kudeatzeko orduan. Datu horiek beste erakunde publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, eskatzaileek emandako datuak egiaztatzeko, eta bereziki gizarte segurantzako erakundeei, ogasun publiko eta zergen arloko administrazioari eta HABEri. Interesdunak datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideaz balia daitezke, Udalera idazki bat bidalita edo herritarrei informazioa emateko puntuetan. Era berean, eskubidea dago Datuak babesteko Euskal Agentzian erreklamatzeko. Informazio gehiago eska dezakezu Bilboko Udalaren Euskara eta Hezkuntza Zuzendaritzan.

## ARTÍCULO 15. PROTECCIÓN DE DATOS

El Área de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Bilbao en el ámbito de la gestión de las solicitudes y concesión de las ayudas por aprendizaje de euskera a determinados colectivos, trata estos datos personales de acuerdo a la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Estos datos podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas para la verificación de los datos aportados y especialmente a Organismos de la seguridad social, Hacienda pública y administración tributaria y a HABE. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento enviando un escrito al Ayuntamiento o en los Puntos de Atención de la ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao. Igualmente se dispone del derecho reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Puede, ampliar información en la en la Dirección de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Bilbao.

## 16. ARTIKULUA. ARAUTEGIA

Prozedura honek lege-arau hauek beteko ditu:

- **38/2003 Lege Orokorra**, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
  - 13. artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak.
  - 14. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

## ARTÍCULO 16. NORMATIVA APLICABLE

El procedimiento se ajustará a lo regulado en:

- **Ley 38/2003**, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
  - Artículo 13. Requisitos para obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora.
  - Artículo 14. Obligaciones de los beneficiarios.

- 20. artikulua. Dirulaguntzen Estatuko Datu Basea (DEDB).

Eta horiek garatzen dituzten arauak:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen **Ordenantza Orokorra** (2016ko uztailaren 20ko BAO, 138 zk.).

Hauetan ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoa**, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- **2/2012 Lege Organikoa**, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- Eusko Legebiltzarraren **4/2005 Legea,** otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak.
    - 24. artikulua. Elkarteak eta erakundeak.
- **19/2013 Legea,** abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
    - I. Titulua. Jarduera publikoaren gardentasuna.
- **39/2015 Legea**, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
    - 16. artikulua: Erregistroak.
    - 44. artikulua: Jakinarazpen hutsegina.
- **2/2016 Legea**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- **1/2013 Legegintzako Errege Dekretua**, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko eskubideen Lege Orokorraren testu bategina onartu duena.
    - II. TITULUA: Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza
- **72/2008 Dekretua**, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde

- Artículo 20. Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS).

Y en la normativa reglamentaria que la desarrolla:

- **Ordenanza General Reguladora** de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público (B.O.B. nº 138 de 20 de julio de 2016).

Asimismo será de aplicación lo dispuesto en:

- **Ley Orgánica 3/2018,** de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
- **Ley Orgánica 2/2012**, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.
- **Ley 4/2005**, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, del Parlamento Vasco, y demás normativa complementaria
    - Artículo 24. Asociaciones y organizaciones.
- **Ley 19/2013,** de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno
    - Título I. Transparencia de la actividad pública.
- **Ley 39/2015**, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
    - Artículo 16: Registros.
    - Artículo 44: Notificación infructuosa.
- **Ley 2/2016**, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- **Real Decreto Legislativo 1/2013**, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social.
    - TÍTULO II: Igualdad de oportunidades y no discriminación
- **Decreto 72/2008**, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.

## A) GURASOEN TALDEA

### 17. ARTIKULUA. BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Taldea honetako onuradunek, 4. artikuluko baldintzez gain, hauek bete behar dituzte:

- 2005ean edo ondorengo urteetan jaiotako umeen ama, aita edo legezko tutorea izatea. Eskaria egiten denerako umeak jaiota egon behar du.

### 18. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Talde honetako eskatzaileek, agiri orokorrez gain (6. artikuluan adierazitakoak) agiri espezifiko hauek aurkeztu behar dituzte:

- Familia Liburuaren fotokopia, hain zuzen ere, eskatzailearen aita edo ama dela eta semearen edo alabaren jaiotza-data zein den ziurtatzen duten orrien kopia, edo
- Neskatoaren edo mutikoaren adina eta tutore dela ziurtatzen duen agiria.

## B) AISIALDIKO ETA KIROLETAKO BEGIRALEEN TALDEA

### 19. ARTIKULUA. BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Talde honetako onuradunek, 4. artikuluko baldintzez gain, hauek bete behar dituzte:

- Umeen edo gazteen aisialdiko begirale edo zuzendari edo umeen eta gazteen kirol arloko begirale edo entrenatzaile jardun izana 2018-2019 ikasturtean.

## A) COLECTIVO MADRES Y PADRES

### ARTÍCULO 17. REQUISITOS ESPECÍFICOS A CUMPLIR

Los beneficiarios de este colectivo deberán cumplir, además de los del artículo 4, los siguientes requisitos:

- Ser madre, padre, tutora o tutor legal de niños o niñas nacidas en 2005 o años posteriores. El niño/ niña deberá haber nacido para la fecha en que se haga la solicitud.

### ARTÍCULO 18. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A APORTAR

Los solicitantes de este colectivo deberán aportar, junto con la documentación general señalada en el artículo 6, la siguiente documentación específica:

- Copia de las páginas del Libro de Familia que acreditan la condición de padre o madre de la persona solicitante y la fecha de nacimiento del hijo/hija, o
- Documento acreditativo de la tutoría sobre la niña o el niño y la edad del mismo.

## B) COLECTIVO MONITORES Y MONITORAS DE TIEMPO LIBRE Y DEPORTE

### ARTÍCULO 19. REQUISITOS ESPECÍFICOS A CUMPLIR

Los beneficiarios de este colectivo deberán cumplir, además de los del artículo 4, los siguientes requisitos:

- Trabajar como monitor/a o director/a de tiempo libre infantil o juvenil o como monitor/a o entrenador/a de deporte infantil o juvenil durante el curso 2018-2019.

## 20. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Talde honetako eskatzaileek, agiri orokorrez gain (6. artikuluan adierazitakoak) bi agiri espezifiko hauek aurkeztu behar dituzte:

- Begirale-tituluaren kopia, umeen edo gazteen aisialdiko hezitzaileen prestakuntza-eskolek egindakoa; edo kirol teknikariaren tituluaren kopia, erakunde ofizialek emandakoa, eta
- Enpresaren, elkarte erregistratuaren edo erakunde ofizialaren agiria, ziurtatzen duena umeen edo gazteen aisialdiko begirale edo zuzendari edo umeen eta gazteen kirol arloko begirale edo entrenatzaile jardun duela 2018-2019 ikasturtean. Enpresa, elkarte erregistratu edo erakunde ofizial horiek egoitza Euskal Herrian izango dute eta zerbitzuak ere bertan emango dituzte.

## ARTÍCULO 20. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A APORTAR

Los solicitantes de este colectivo deberán aportar, junto con la documentación general señalada en el artículo 6, los dos documentos específicos que se detallan a continuación:

- Copia del título de monitor otorgado por escuelas de formación de educadores y educadoras en tiempo libre infantil y juvenil reconocidas oficialmente; o copia del título de técnico deportivo otorgado por organismo oficial, y
- Certificado de empresa, asociación registrada o institución oficial donde preste sus servicios el curso 2018-2019 como monitor/monitora de tiempo libre infantil o como monitor/ monitora o entrenador/entrenadora de deporte infantil o juvenil. Dicha empresa, asociación registrada o institución oficial debe estar ubicada y prestar sus servicios en el País Vasco.

## C) ERRENTA TALDEA

## 21. ARTIKULUA. BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Talde honetako eskatzaileek, 4. artikuluko baldintzez gain, hauek bete behar dituzte:

- Diru-sarrerak, gehienez ere, programa honetarako 21.1. puntuan ezarritakoak izatea.

**21.1. Bizikidetza-unitateko edo familia-unitateko kide konputagarrien diru-sarrerak:**

Bizikidetza-unitatea edo familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien diru-sarreren kalkulua, gehienez ere, adierazitako kopurua izango da, kontuan hartuta unitatea zenbat pertsonek osatzen duten.

## C) COLECTIVO RENTA

## ARTÍCULO 21. REQUISITOS ESPECÍFICOS A CUMPLIR

La persona solicitante de este programa deberá cumplir, además de los requisitos del artículo 4, el siguiente requisito:

- Obtener unos ingresos económicos iguales o inferiores a los establecidos para este programa en el punto 21.1.

**21.1. Ingresos económicos de las personas computables de la unidad de convivencia o familiar:**

El cálculo del ingreso económico total de todas las personas que integran la unidad de convivencia o familiar no podrá superar las siguientes cifras, teniendo en cuenta el número de personas de la unidad.

| Kide kopurua | Unitateko kide konputagarrien diru-sarrerak, guztira |
|---|---|
| 1 | 14.826 |
| 2 | 25.308 |
| 3 | 34.352 |
| 4 | 40.796 |
| 5 | 45.598 |
| 6 | 49.224 |
| 7 | 52.810 |
| 8 | 56.380 |

(Taula hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2018-2019 ikasturterako dirulaguntza deialditik eskuratu da).

Kide konputagarri berri bakoitzeko 3.562 euro gehituko dira.

**21.2. Eskatzailearen bizikidetza-unitatearen edo familia-unitatearen diru-sarreren kalkulua:**

Kalkuluak 2017ko zerga-datuetan oinarrituko dira.

PFEZ aitorpena aurkezten bada, zerga-oinarriari dagozkion zenbatekoak eta aurrezpenaren zerga-oinarrikoak gehituko zaizkio, eta kopuru horri kuota likidoa kenduko zaio.

PFEZ aitorpena aurkezten ez bada, kontuan hartuko dira laneko errentak, jarduera ekonomikoetatik lortutako diru-sarrerak, kapital higigarrien etekinak, kapital higiezinaren etekinak eta ondare-aldaketak

Kalkulu hau bizikidetza- edo familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien zerga-datuei aplikatuko zaie, 21.1 puntuan adierazitakoaren arabera.

**21.3. Bizikidetza-unitateko edo familia-unitateko kide konputagarriak:**

Pertsona konputagarriak dira errolda taldean dauden guztiak, tartean dirulaguntzaren eskatzailea.

Ez dira bizikidetza- edo familia-unitatearen barruan sartuko eskatzailearekin batera errolda taldean

| Número de miembros | Ingreso económico total de los miembros computables de la unidad |
|---|---|
| 1 | 14.826 |
| 2 | 25.308 |
| 3 | 34.352 |
| 4 | 40.796 |
| 5 | 45.598 |
| 6 | 49.224 |
| 7 | 52.810 |
| 8 | 56.380 |

(Tabla extraída de la convocatoria de becas 2018-2019 del Departamento de Educación del Gobierno Vasco).

Por cada nueva persona computable se añadirán 3.562 euros.

**21.2. Cálculo de los ingresos económicos de la unidad de convivencia o familiar de la persona solicitante:**

Los cálculos se realizarán en base a los datos tributarios del ejercicio 2017.

En caso de presentar declaración del IRPF, se sumarán los importes correspondientes a la base imponible general y la base imponible del ahorro, y se le restará la cuota líquida.

En caso de no presentar declaración del IRPF, se tendrán en cuenta las rentas del trabajo, ingresos derivados de actividades económicas, rentas de capital mobiliario, rentas de capital inmobiliario y variaciones patrimoniales.

Este cálculo se aplicará a los datos tributarios de todas las personas que forman la unidad de convivencia o familiar, según el punto 21.1.

**21.3. Personas computables de la unidad de convivencia o familiar:**

Se entenderá como personas computables todas las personas que figuran en el padrón colectivo en el que está incluida la persona solicitante de la ayuda.

No se incluirá en la unidad de convivencia o familiar a la o las personas que figurando en el padrón

egon arren, etxebizitza partekatuaren alokairua dutela justifikatzen dutenak.

## 22. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Talde honetako eskatzaileek, agiri orokorrez gain (6. artikuluan adierazitakoak) agiri espezifiko hau aurkeztu behar dute:

- Alokairu-kontratuaren kopia, bizikidetza- edo familia-unitateko pertsonaren bat alokairuan baldin badago.

colectivo con la persona solicitante pueda justificar un alquiler de piso compartido.

## ARTÍCULO 22. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A APORTAR

Los solicitantes de este programa deberán aportar, junto con la documentación general señalada en el artículo 6, la siguiente documentación específica:

- Copia del contrato de alquiler o subarriendo, si en el domicilio donde reside la unidad de convivencia o familiar convive alguna persona en esa situación.